

EUSKARA IKASTETXEETAN

SARRERA

Ikasturte berria dagoeneko! Aurten opor laburragoak izan ote ditugu, bada? Horrela zirudien behintzat. Ikasturte berriaren ordua heldu zaigunez gero, zer egingo dugu, bada...? ONGI ETORRIA eman eta datorren urtean lasaiago ibiltzeko, guk ez dugula presarik izaten ikasturtea hasteko eta...

Oraindik denboraren zentzuaz jabetu gabe dagoen haur ttiki bati, eskolara noiz hasi behar duen galdetzerakoan, «bihar» izango da gehienetan erantzuna. «Bihar» hau heldu zaio, ikasturtearekin batera.

Lehenengo egunean, gurasoekin joan eta hauei agur egin ondoren gelako atea ixtean, ai ama!, orduan dira kontuak, orduan! Gurasoak berriro ikusiko ez dituen beldurrez, ezagutzen ez duen haur multzo artean galdurik eta arrotz. Irakaslea giro atsegin bat prestatzen ari dan bitartean, hura negar musika kontzertua entsaiatzen.

-Lasai zaitetz, ttikitxo! zure irakaslea, heziketa askatzaile baten atzetik dabilen horietakoa duzu eta. Ahaleginak egingo ditu zuk barruan dituzun sentipen horiek lasaitasunez adieraz ditzasun; zure sormenari bide berriak zabaltzen ere saiatuko da; nortasun garapena lortzen laguntzeko prest daukazu; zu ahalik eta ondoen ezagutuz, zure gidari izan nahi luke eta ez zaindari zorrotz.

Azalpen hauek, agian zuretzat lekuz kanpo daude. Hala ere,

jakin ezazu zutaz asko arduratzen dela; agindu dizun guztia betetzeko aina prestutasun baduela; gainera, menturazale samarra ere bada; menturazalea izan behar baita ikasturte berri bati aurpegia emateko.

Izatik edo aurreko urtetik hasiak direnak, une berezi hone-tan ausartago azaltzen dira, izan ere, hauek errekluta sasoi-a igar-oroa dute. Udako gorabeherak irakasle eta ikaskideei kontatzeko irrika bizitan; dituzten gauza berriak erakusteko berdin: bota, soineko, baloi, zorro etab.

Azterketa giroa bizi dutenen artean, eskolara hurbiltze des-berdina nabari izango da. «GUTXI»ren bat paperetan dutenek, oporren gozotasuna dastatu gabe, beldurra kolkoan gordetik egingo dute ikasturte berriaren gurgpilean sartzea. Eskolak ez luke izan behar inola ere inor beldurtzeko.

Lasai daitezala esango nieke, datorrena askoz hobea izango zaiela eta. Gurasoak ere ikutzen ditu giro honek. Kezka askotan irakitan egon ohi dira, erantzunik gabeko galderak buruan irabi-atzten darabiltzelarik: gure ttikia pozik ibiliko ote da eskolan? Lagunik egingo al du? Irakaslearekiko jarrera ona izango ote du? Eta irakasleak beronekiko,....?

Handiagoak dituztenak:

Ekaineko suspensioa gaudituko ote du? Datorrenean dena gaudituko ote? Bere arazoetan lagungarri ote gatzaitziko?

Irakaslea heziketa hobe baten atzetik dabilenez, egin behar dituen aldaketetarako, barrutik ausardia atera nahien.

Irakaskuntza, izan ere, atzeratua geratu da. Ezin ukatu iraultza baten beharrean aurkitzen denik. Bizitzak «aurrerakun-tza» nabarmenak egin ditu; aurrerakuntzak kakotxa artean, nos-ki, ez baitut uste bizitzan ageri diren berrikuntza guztiek aurre-rakuntzarekin zer-ikusirik dutenik. Bizitzarekin erlazio biziagoa beharko luke heziketak, haurraren interesak harrapatuko baditu behintzat.

Eskolako giroa baino kanpoko erakargarriago gertatzen zaio haurrari, eta beraz, kanpoko mundu bizi hori heziketa barnean txertatzen saiatu beharko genuke.

Heziketa egoki batetan ezin ahaztu gizarte giro desberdina daudenik, horrek baldintzatzen baititu haurraren interesak. Adibide bat jartzeko, baserri giroko haur batek, eskola kontzentratuetan, lekuz kanpo ikusiko du, sarritan, bere burua; inoiz moldakaitz agertzea ere gerta daiteke.

1. Hizkuntzaren plangintza berri baten saioak eskoletan

Beste zenbait ikastetxek, (ikastolek, adibidez) bide luzea egina dute honetan, eta ondorioak ere hor daude. Hobeak izan baziteskeen ere, ezin ukatu haurrak euskalduntzeko egokia zenik. Ikastolak txikiagoak zirenean eta gurasoen partaidetza lortzen zenerako, nahiko ona zen. Gero, handituz joan diren heinean, agian, emaitzak ere ez dira hobetu ezinekoak izan. Egoera berrira moldatzeko ahalmena falta izan zaiela dirudi.

Plangintza osotzen duten ereduak

Eredu linguistiko hauen nondik norakoa aipatuko dugu, labur-labur bada ere.

«A» Eredua

Euskara asignatura bezala. Eredu honetan, euskara, irakasle berezi edo espezifikoen ardurapean dago gehien bat. Nire ustez, hobe litzateke, hala ere, tutore euskaldunen esku balego ardur hau. Astero hiru edo lau ordutan eman ohi da euskara. Eredu honen emaitzak oso urriak direnik ezin uka...

«D» Eredua

Inguru soziolinguistiko euskalduna duten haurrentzat pentsatua. Dena eman ohi da euskeraz. 3. mailatik aurrera, asignatura bezala gaztelania.

Eskoletan, eredu honen esperientzia handirik ez dago oraindik. Ikastoletan, ordea, eredu honetako esperientzi luzea

dute eta baldintzak ondo zaindu direnetan, ondorioak ere onak izan dira beti. Ahal den leku guztietan Eredu honetara jo behar litzateke. Horretarako baldintzak dituztenetan, ez dago zalantzarik, hauxe dela Eredurik emankorrena.

«B» Eredua

Etxean giro euskaldunik ez dutenentzat, ingurune soziolinguistiko erdaldunean bizi direnentzat pentsatua.

Eredu honen helburua, urteetan zehar, piskanaka-piskanaka, haurrak euskalduntzea da; maila batetik aurrera, ikasketak euskaraz egin ahal izateko eran.

Honen fruituak ongi ezagutzeko, ez dugu oraindik behar den urruntasunezko ikuspegirik. Bestalde era guztietako iritziak daudenez, bere fruituen berri eman aurretik, objetiboki aztertu beharra dago.

Eredu honek ondorio onak izan ditzan, beharko lituzken baldintza guztiak ere oraindik ez dira betetzen; izan ere, esperientzi berri batek, hurbil-hurbiletik jarraitzea eta laguntza berezia eskatzen ditu, beste gauza askoren artean.

Eredu honetan, arlo-banaketa honelatsu egitea gomendatzen dute, hau martxan jarri zutenek:

Gaztelaniazko arloak

Aurreirakurketa - Irakurketa

Aurreidazketa - Idazketa

Matematika

Gaztelania bera

Euskerazko arloak

Esperientziak

Sikomotrizitatea

Plastika

Euskal hizkuntza bera:

- Era intentsiboan

- Era estentsiboan

2. Eskoletan euskarak aurkitzen dituen zenbait arazo

Eskoletan euskarak duen tradizio urria da arazoetariko bat. Geroago eta euskaldun gehiago sartzten den arren, oraindik gelaz kanpo, erdara da nagusi. Euskara aukeratu duten haurrak gutxiago direnez, erdaraz inguraturik daude, irla batetan bezala. Hau, denboraren joan-etorrian edo euskarak leku andiagoa hartzen duen neurrian hobetzen joango da, eta hala bedi!

Zenbait kasutan toki fisikoa ere, agian, aztertzea litzateke. Erdaldunengandik aparte? Euskara normalkuntza batetan balego, bidezkoago litzateke, noski, horrelakorik ez egitea baina...

Hiru Ereduak orain arte elkarrekiko lotura handirik gabe funtzionatu dute; beraz, salbuespenak salbuespen, ez da egin izan programa orokorrik, euskara barne dela. Horregatik garbi utzi nahi genuke hau: beste programaketa egin ondoren, euskara eraskin bezala sartzerik ez dago, gauzak ongi egingo badira.

Irakaslegoaren finkotasunik eza ere ez da arazorik txikiena. Orain eta aspaldidanik eskoletarako dagoen sistemak, irakaslegoaren finkotasunik eza dakar. Esan dezadan honen adierazgarritzat, puntuazioaren arauera izendatzen dela nornorako izango den, eta aldaketak ete horrelaxe eten gabe gertatzen direla.

Eskola nazionelatako antolaketa beti horrela izan denez gero, normaltzat jotzen dugu; hala ere heziketa-planak egite orduan, oztoporik txikiena ez dela bilakatzen argi dago, planen etena ekar dezakelako.

Ikastetxe pribatuetan, markaturiko bidean aurrera egiteko egokiera hobea dute, normalean irakaslego finkoagoa izaten delako hauetan. Ez nuke nahi adibide hau dela ta, pri-

batuetan gauzak hobeto egiten dituztela inork pentsa dezan. Ez nuke horretan sartzetik nahi; izan ere, konparaketak, esaten dena argitzeko ez bada, ez dute askorik laguntzen.

Dena dela, eskola nazionalak eta pribatuak konparatzerik ez dago, bata eta bestea baldintza desberdinetan eraturik daudelako.

Eskolatik kanpo euskararen lagungarri izango liratekeen ekintzarik eza nabari da. Inguru erdaldunak itota aurkitzen da euskara ikasi nahi duena.

Honi buruz, Gipuzkoako eskoletan ari direnek ere, 1982ko maiatzean egindako txosten batetan, beste egia borobil askoren artean, hauxe berau egiztatu zuten: Inguruaren euskaldundu beharra, bizitza osoa, ingurua kutsatu, komunikabide (telebista, egunkari, aldizkari), literatura, zinema, *udaleku* eta *neguleku*. Ahal den neurrian neguan ere, euskara entzuten den ingurune batetara edo behintzat erdara entzuten ez denera 10 - 15 egunetarako irakasleekin joateak on baldia ekar dezake, ongi eratuz gero behintzat. Haurraren sozializaterako ere lagungarri gertatu ohi da gehienetan. Ingurune desberdinetan euskara erabiltzeak, hizkuntza berari ere molde aberatsagoa eman ohi dio, eta beraz, mesede egiten dio.

Normalean haurrak eskolara beranduegi hasten dira. Nire uste apalean hobe litzateke ama-hizkuntza hain finkatua ez dutenean hastea, horrela bi hizkuntzak bateratsu eta oreka batez ikasiz joango lirateke.

Dena dela, honetan, «zenbat buru, hainbat aburu» direla autortu behar.

Irakurketa eta idazketa erdaraz eta gazteegitan hastea, euskararen kalterako da, honentzat eta hizkuntzaren trebetza-

sunak lortzen erabili behar zuen denbora, erdaraz irakurtzen eta idazten eman baita.

3. Kontutan hartu beharreko zenbait puntu

- Baldintza desegokietan horrelako esperientzi zail bat bideratzen iharduteak baliteke ohitura txarren batzuk sartzea eskoletan. Irakaslearengan, berriz, zapuzketa, ustea galtzea, lorpen urriak ikusirik.
- Euskarazko taldeetan dagoen haurren batengan, arazoren bat zumatu orduko, euskaragatik dela uste izaten da eta inoiz gurasoei erdarazko taldera pasa erazteko aholkua eman ere bai.

Arazo patologikoren bat sumatzen ez dugun bitartean, jo-kaera hau kaltegarritzat jo beharko genuke. Badakigu gai hau korapilotsua dela; baina horrexegaitik, hain zuzen ere, erabakiak hartzerakoan, ezin da arinkeriaz jokatu; gutxiago oraindik auzi guzti hauen errua euskarari egotzi.

Euskal Herrian oraindik irakaslego erdaldunaren kopurua nahiko handia da.

Batzuk euskararik ez dakitelako eta beste zenbait aurka ere egon daitezkelako..., oztopo latzak sortzen dituzte euskararen plangintza on bat aurrera eramateko.

Langile bezala, eta are gehiago lankide bezala begirunea zor bazaie ere, euskararen irakaskuntza ezin dezakegu inola ere hauen baldintzapean utzi.

Pilare Baraiazarra